

**DATU-BABESAREN GAINEN
ERAGINAREN EBALUAZIOA
BEHAR DUTEN DATU
TRATAMENDU MOTEN ZERRENDA**

**LISTA DE TIPOS DE TRATAMIENTOS
DE DATOS QUE REQUIEREN
EVALUACIÓN DE IMPACTO
RELATIVA A PROTECCIÓN DE DATOS**

SARRERA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (aurrerantzean “*Erregelamendu Orokorra*”) Datu-babesaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa (aurrerantzean “*Eraginaren Ebaluazioa*”) arautzen du “*Tratamenduaren arduraduna eta tratamendu-eragilea*” izenburua duen IV. Kapitulua 3. Atalean.

Zehatz esanda, Erregelamendu Orokorren 35. artikuluko 1. zenbakiak izaera orokorrekinekin xedatzen du datu-tratamenduen arduradunek Eraginaren Ebaluazio bat egin beharko dutela tratamenduak abian jarri aurretik, baldin eta izaera, irismena, tesuingurua edo helburuak direla-eta arrisku handia ekar badiezaieke pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei. Gainera, Erregelamendu Orokorrek dioenez, “*batez ere teknologia berriak erabiltzen bada*”, arrisku handiak are gehiago handitu daitezkeelako.

Bestalde, 35.3 artikulua dio Eraginaren Ebaluazioa egiteko eskatuko dela honako kasu hauetan batez ere:

- a) Pertsona fisikoen alderdi pertsonalak aztertzen dituen eta tratamendu automatizatu batean oinarrituta dagoen ebaluazio sistematiko eta zehatza —profilak egitea adibidez—, zeina oinarri hartuta pertsona fisikoentzako ondorio juridikoak dituzten erabakiak hartzen baitira edo antzerako eragin esanguratsuak sortzen baitira.

INTRODUCCIÓN

El Reglamento (UE) 2016/679, General de Protección de Datos, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril (en adelante RGPD) dedica la Sección 3 de su capítulo IV “*Responsable del tratamiento y encargado del tratamiento*” a la Evaluación de Impacto relativa a la protección de datos (en adelante EIPD).

En concreto, el apartado 1 del artículo 35 establece, con carácter general, la obligación que tienen los responsables de los tratamientos de datos de realizar una EIPD con carácter previo a la puesta en funcionamiento de tales tratamientos cuando sea probable que éstos por su naturaleza, alcance, contexto o fines entrañen un alto riesgo para los derechos y libertades de las personas físicas, alto riesgo que, según el propio Reglamento, se verá incrementado cuando los tratamientos se realicen utilizando “*nuevas tecnologías*”.

Por otra parte, el artículo 35.3 establece que la EIPD se requerirá en particular en el caso de:

- a) evaluación sistemática y exhaustiva de aspectos personales de personas físicas que se base en un tratamiento automatizado, como la elaboración de perfiles, y sobre cuya base se tomen decisiones que produzcan efectos jurídicos para las personas físicas o que les afecten significativamente de modo similar;



- b) Erregelamendu honetako 9.1 artikuluan aipatzen diren datu-kategoria berezien eskala handiko tratamenduak edo 10. artikuluan aipatzen diren kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalen tratamenduak.
- c) Sarbide publikoa duen gune baten eskala handiko behaketa sistematikoa.

Erregelamendu Orokorrek xedatzen du kontrol-agintaritzek zerrenda bat argitaratu beharko dutela Eraginaren Ebaluazioa behar duten datu tratamenduekin, tratamenduen arduradunei laguntzeko hobeto identifikatzen zein tratamenduk behar duten halako bat. Datuak Babesteko Europako Lantaldeari (Europako Lantaldea) jakinarazi behar zaio zerrenda.

Datu-tratamendu bat aztertzen denean, ia beti egin beharko da Eraginaren Azterketa bat, baldin eta tratamenduak segidan aipatzen den zerrendako irizpideetako bi edo gehiago betetzen baditu. Kontrara, ez da Eraginaren Azterketarik egin beharko, baldin eta halakorik behar ez duten tratamenduen zerrendan badago (Erregelamendu Orokorren 35.5 artikulua). Ondoko zerrendako zenbat eta irizpide gehiago izan tratamenduak, orduan eta arrisku handiagoko tratamendua izango da, eta argiago egon da Eraginaren Ebaluazioa egin beharra dagoela.

Zerrenda egiteko erabili dira 29. artikuluko Lan Taldeak egindako WP248 gidako irizpideak (“*Datu babesari buruzko eraginaren ebaluazioari buruzko (DBEE) eta, 2016/679 Erregelamenduaren ondorio-etarako, ea tratamenduak «arrisku handia ote daren» zehatzeko jarraibideei buruzko Gida*”). Zerrenda honek gidakoak osatzen ditu, baina, hala ere, ez da guztiz osoa. Hona zerrenda:

- b) tratamiento a gran escala de las categorías especiales de datos a que se refiere el artículo 9, apartado 1, o de los datos personales relativos a condenas e infracciones penales a que se refiere el artículo 10, o la
- c) observación sistemática a gran escala de una zona de acceso público.

Para facilitar a los responsables de los tratamientos la identificación de aquellos tratamientos que requieren una EIPD, el RGPD dispone que las autoridades de control *deberán* publicar una lista con los tratamientos que requieran de una EIPD. Dicha lista deberá ser comunicada al Comité Europeo de Protección de Datos (CEPD).

En el momento de analizar tratamientos de datos será necesario realizar una EIPD en la mayoría de los casos en los que dicho tratamiento cumpla con dos o más criterios de la lista expuesta a continuación, salvo que el tratamiento se encuentre en la lista de tratamientos que no requieren EIPD a la que se refiere en artículo 35.5 del RGPD. Cuantos más criterios reúna el tratamiento en cuestión, mayor será el riesgo que entrañe dicho tratamiento y mayor será la certeza de la necesidad de realizar una EIPD.

Esta lista se basa en los criterios establecidos por el Grupo de Trabajo del Artículo 29 en la guía WP248 “*Directrices sobre la evaluación de impacto relativa a la protección de datos (EIPD) y para determinar si el tratamiento «entraña probablemente un alto riesgo» a efectos del RGPD*”, los complementa y debe entenderse como una lista no exhaustiva:



**ERREGELAMENDU OROKORRAREN 35.4 ARTIKULUA
AGINTZEN DUEN DATU-BABESAREN GAINEKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA EGIN BEHAR DUTEN
TRATAMENDU MOTEN GUTXI GORABEHERAKO ZERRENDA.**

**LISTA ORIENTATIVA DE TIPOS DE TRATAMIENTO QUE
REQUIEREN UNA EVALUACIÓN DE IMPACTO RELATIVA A LA
PROTECCIÓN DE DATOS SEGÚN ARTÍCULO 35.4 RGPD**

- | | |
|--|--|
| <ol style="list-style-type: none">1. Subjektuen gaineko balorazioak edo profila egiteko balio duten tratamenduak, bai eta subjektuaren bizitzako hainbat esparrutan egindako datu-bilketak ere (lan esparrua, nortasuna eta portaera), bere nortasunari edo ohiturei buruzko hainbat alderdi hartzen dituztenean.2. Erabaki automatizatuak hartzeko balio duten tratamenduak, edo halako erabakiak hartzen laguntzen duten tratamenduak, bai eta erabakiak ere, baldin eta interesdunei traba egiten badiete eskubideak baliatzeko edo ondasun edo zerbitzu bat eskuratzeko edo kontratu baten parte izateko.3. Modu sistematikoan eta zorrotzean interesduna behatu, monitorizatu, gainbegiratu, geolokalizatu edo kontrolatzeko balio duten tratamenduak, honakoak barne: sareen edo aplikazioen bidez egindako edo sarbide publikoko gunetan egindako datu eta metadatu bilketak; bai eta informazioaren gizartearen zerbitzuen erabiltzaileak identifikatzeko balio duten berariazko identifikatzaileak prozesatzen dituzten tratamenduak ere, hau da, web zerbitzuak, TB interaktiboa, aplikazio mugikorak eta abar.4. Erregelamendu Orokorraren 9.1 artikuluko datu kategoría bereziak erabiltzen dituzten tratamenduak, Erregelamendu Orokorraren 10. artikuluko kondena edo arau-hauste penalei buruzko datuak edo finantza egoera eta ondare-kaudimena zehazteko balio duten datuak edo datu kategoría bereziekin lotuta dagoen pertsonen buruzko informazioa ondorioztatzen duten datuak.5. Datu biometrikoak erabiltzea eskatzen duten tratamenduak, pertsona fisiko jakin bat berariaz identifikatzeko asmoarekin.6. Datu genetikoak erabiltzen dituzten tratamenduak, edozein dela helburua. | <ol style="list-style-type: none">1. Tratamientos que impliquen perfilado o valoración de sujetos, incluida la recogida de datos del sujeto en múltiples ámbitos de su vida (desempeño en el trabajo, personalidad y comportamiento), que cubran varios aspectos de su personalidad o sobre sus hábitos.2. Tratamientos que impliquen la toma de decisiones automatizadas o que contribuyan en gran medida a la toma de tales decisiones, incluyendo cualquier tipo de decisión que impida a un interesado el ejercicio de un derecho o el acceso a un bien o un servicio o formar parte de un contrato.3. Tratamientos que impliquen la observación, monitorización, supervisión, geolocalización o control del interesado de forma sistemática y exhaustiva, incluida la recogida de datos y metadatos a través de redes, aplicaciones o en zonas de acceso público, así como el procesamiento de identificadores únicos que permitan la identificación de usuarios de servicios de la sociedad de la información como pueden ser los servicios web, TV interactiva, aplicaciones móviles, etc.4. Tratamientos que impliquen el uso de categorías especiales de datos a las que se refiere el artículo 9.1 del RGPD, datos relativos a condenas o infracciones penales a los que se refiere el artículo 10 del RGPD o datos que permitan determinar la situación financiera o de solvencia patrimonial o deducir información sobre las personas relacionada con categorías especiales de datos.5. Tratamientos que impliquen el uso de datos biométricos con el propósito de identificar de manera única a una persona física.6. Tratamientos que impliquen el uso de datos genéticos para cualquier fin. |
|--|--|



- | | |
|---|---|
| <ol style="list-style-type: none">7. Datuak eskala handian erabiltzen dituzten tratamenduak. Tratamendu bat eskala handikoa den ala ez jakiteko, kontuan hartuko da 29. Artikuluko Lan Taldearen “<i>Datuak babesteko ordezkari (DBO) buruzko jarraibideak</i>” izenburua duen WP243 Gida.8. Hainbat datu baseetako erregistroak lotu, konbinatu edo uztartzen dituzten tratamenduak, baldin eta helburuak beste batzuk badira edo arduradunak beste batzuk badira.9. Subjektu ahulen edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen datuen tratamenduak, bai eta honakoen datu tratamenduak ere: 14 urte baino gutxiagokoak, ezgaitasun graduren bat duten helduenak, ezgaituenak, gizarte zerbitzuetara jotzen dutenak eta genero indarkeriaren biktimak, bai eta haien zaintza edo babespean dauden ondorengoenak eta beste pertsonenak ere.10. Teknologiak berriak erabiltzen dituzten edo finkatutako teknologien erabilera berritzaileak egiten dituzten tratamenduak, teknologien eskala handiko erabilera barne, hau da, beste helburu baterako edo beste batzuekin uztartuta erabiltzea, eta hori egitean datuak biltzeko eta erabiltzeko modu berriak sortzen badira eta arriskuan jartzen badituzte pertsonen eskubideak eta askatasunak.11. Interesdunei eskubideak baliatzeko, zerbitzuak erabiltzeko edo kontratuak exekutatzekeo trabak jartzen dizkieten tratamenduak, adibidez, datuak tratatuko dituen arduradunak barik beste batek bildutako datuak direnean, eta, arduradunak, interesdunei eman zaien informazioari dagokionez, Erregelamendu Orokorren 15.5 (b, c, d) artikuluan jasotako salbuespenetako bat erabiltzen duenean. | <ol style="list-style-type: none">7. Tratamientos que impliquen el uso de datos a gran escala. Para determinar si un tratamiento se puede considerar a gran escala se considerarán los criterios establecidos en la guía WP243 “Directrices sobre los delegados de protección de datos (DPD)” del Grupo de Trabajo del Artículo 29.8. Tratamientos que impliquen la asociación, combinación o enlace de registros de bases de datos de dos o más tratamientos con finalidades diferentes o por responsables distintos.9. Tratamientos de datos de sujetos vulnerables o en riesgo de exclusión social, incluyendo datos de menores de 14 años, mayores con algún grado de discapacidad, discapacitados, personas que acceden a servicios sociales y víctimas de violencia de género, así como sus descendientes y personas que estén bajo su guardia y custodia.10. Tratamientos que impliquen la utilización de nuevas tecnologías o un uso innovador de tecnologías consolidadas, incluyendo la utilización de tecnologías a una nueva escala, con un nuevo objetivo o combinadas con otras, de forma que suponga nuevas formas de recogida y utilización de datos con riesgo para los derechos y libertades de las personas.11. Tratamientos de datos que impidan a los interesados ejercer sus derechos, utilizar un servicio o ejecutar un contrato, como por ejemplo tratamientos en los que los datos han sido recopilados por un responsable distinto al que los va a tratar y aplica alguna de las excepciones sobre la información que debe proporcionarse a los interesados según el artículo 14.5 (b, c, d) del RGPD. |
|---|---|